



Merkataritza jasangarria, Retail Euskal Eskolaren II. Biltzarrean

Topaketak "Merkataritza jasangarria = Etorkizuneko merkataritza" leloa izango du ardatz, iraunkortasunak euskal merkataritzaren eta hiri-ekonomiako negozioen lan ona sostengatu behar duela sinetsita.

Euskadiko retaila eta hiri-ekonomiako negozioak motibatzeke eta bultzatzeko helburuarekin, beren jarduerak berritu eta lehiakorragoak izan daitezzen, **Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak** eta **Eusko Ganberak Retail Euskal Eskolaren II. Biltzarra** egingo dute datorren asteazkenean, urriak 5, Bilboko Euskalduna Jauregian.

Jardunaldia Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburu **Javier Hurtadok** eta Eusko Ganberen lehendakari den **Pedro Esnaolak** hasiko dute, programa zabal bati hasiera emanez. Programa horretan, merkataritza iraunkorraren oinarri nagusiak azalduko dira, EAEko hiru tokiko saltokiren eta tokiko enpresa handi baten esperientzia arrakastatsuak.

Aurkezpenaren ondoren, Eusko Ganberako Rebeca Zornoza **"Zer den saltegi jasangarria. Zer ekarpen du jasangarritasunak nire saltegiaren errentagarritasunean"** gaia landuko du. Asier Aranbarrik, Lehendakaritzako Gizarte Trantsiziorako eta 2030 Agendarako Idazkaritza Nagusiko Gizarte Berrikuntzako zuzendariak jarraituko du **"2030eko Agendarako kontratu sozial berria: zer ekarpen egin dezakeen merkataritzak**



GJHetan” gaiaren inguruan. Bestalde, M^a José Sanz BC3 Basque Centre of Climate Changeko zuzendariak Merkataritza, **“Merkataritza, jasangarritasuna eta neutraltasun klimatikoa”**-ri buruz hitz egingo du.

Retailen Euskal Eskolaren II. Kongresuak tokiko enpresen praktika arduratsuen analisiarekin jarraituko du, **“Jasangarritasuna zero hondakinaren ikuspegitik”** Alejandro Martínez Berriochoa Eroski, S. Coop-eko Osasun eta Iraunkortasun zuzendariaren eskutik.

Jarraian, Euskadiko hiru saltokik hartuko dute hitza, **“Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko enpresen jarduera arduratsuak”** gaiari buruz aritzeko: Vitoria-Gasteizko Arlekin liburu-denda, Gorlizko Kattalin Arropa eta Donostiako Nomada.

Azkenik, solasaldi bat egingo da eta **Retail Euskal Eskolaren II. Biltzarrari** amaiera emango zaio.

Para más información:

Jone Lacunza

jlacunza@camaragipuzkoa.com

943000310 / 688884347